

FOODI

FUNTSEZKO JARDUERAK

Bezeroen erosketak egin, etxera ekarri eta kolokatzea, hau izango da gure jarduera nagusia. Baina ez da bakarra, izan ere beste hainbat jarduera burutu behar ditugu balorezko proposamenean aipatutakoa lortzeko.

Bezeroak lortzeko publizitate egokia erabiltzea: Kartelak, sare sozialak, web gunea, app... ahalik eta tresna gehien erabili beharko ditugu bezeroak erakartzeko.

App erakargarri bat egitea. Bilboko informatika enpresa batek egingo duen harren bazkide guztiok erabaki ditugu app horretan jarri beharreko informazioa, argazkiak, koloreak... Garrantzitsua iruditu zaigu app honetan txertatzea, erosketa egin dugunetik zenbat denbora igaroko den eskatutako etxera itzuli arte.

Bezeroekiko etengabeko komunikazioa izatea. Bezeroek hainbat bide desberdin izango dituzte gurekin komunikatzeko. Erreztasuna eman behar diegu.

Emango dugun zerbitzua kalitatezkoa izatea. Hau horrela izateko bezero bakoitzak nahi izanez gero app ren bidez erosketa bat egin ondoren inkesta bat betetzeko aukera izango du gure zerbitzua puntuatuz. Honen bidez gure zerbitzuan kalitatea aurkitzen lagunduko digute.

